

ERAKUSLEIHOA

HAUR LITERATURA

'Naian'

Nerea Loiola. (Ilus. Jon Aranguren). Erein. 48 orr. 16 euro.



Buruz behera eta aniztasuna aldarrikatuz

Zergatik dago buruz behera? Zer gertatzen zaio? Horrela egongo al da beti? Noiz arte? Noiz jarriko da normal, besteok bezala? Eta, norbait betirako desberdina bada, zer? 'Naian' liburu ilustratua ondu dute Nerea Loiolak eta Jon Arangurenak. Buruz behera dagoen haurra da Naian, baina, errealitatean, "edonor" izan daiteke buruz behera dagoena. "Denok izan gaitzeko desberdin, segun eta geure burua norekin konparatzen dugun". Aniztasuna irudikatzen du Naian pertsonaiak, "zentzurik zabalenean".

SAIAKERA

'Sendabelarreko dakitena'

Garbiñe Larrea. Argia. 248 orr. 25 euro



Sendabelarrek ezagutu, bildu eta erabiltzeko

Liburu honetan 45 sendabelarren propietateak ezagutzeko eta osasunaren mesedetan erabiltzeko informazio zehatza aurkituko du irakurleak. Ularduak, tinturak, infusioak eta abar autonomiaz egiteko azalpenak ematen ditu Garbiñe Larreak. Sendabelarren inguruko ezagutzan sakontzea, ikasitakoa eta jasotakoa elkarbanatzea, ekarpen berriak egitea, euren toxizitatea eta albo kalteak ezagutzea eta, batez ere, gure egunerokotasuna aberasteko balioko diguten ezagutza praktikokoak eskuratzea da liburu honen egitekoa.

ZALDI EROA

